

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2022ko irailak 30 · 1241 zenbakia

## EUSKARAZ DASTATU SAGARDO EGUNA

ZURE LENTEN EROSKETAREN

**MONTURA DOAN**

2. betaurrekoa

**OPARI**

Kontuak zure zatiaren erabilera zuzentzeko.



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfidantza - diseinua

www.multiopticas.com



# osasun gida

## Dentistak

arat.  
HORTZ KLINIKAK

**ZURE IRIBARRE ONENA**



Toribio Etxeberria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 807  
www.aratclinicak.com

 **IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnos. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Fisioterapeutak

 **ANE MENDIA**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

79 kalegata etxia.  
- IRIBARRE  
- KIBUE, LENKIAK  
- Puzkion eta TUBERKULOSIA  
- K-merioak eta HIZPULSIONAK

ARRAQUETA, 20  
Tfn. 943 63 66 42  
ane\_mendia@hotmail.com

 **EIBAR** HORTZ KLINIKAK  
CLINICA DENTAL

**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizentziatua  
S15.12.18

San Agustin Kalea, 4 beheko ezkerrean  
20600 Eibar (Dipukoak)  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidobarrieta, 7-1. esk. 843-702888**

## Ginekologia

*Dra. Laura Martínez*  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia  
- Obstetrizia  
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com

 **Unzaga Plaza**  
Hortz Klinika - Clínica Dental

**Maite Orozco Ventura**

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerrean Tel. 943 70 23 85

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnos: 943 20 72 17

 **GASTESI**  
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1.C  
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



943-206776

# Jarraitu gaitzazu!



Sagardo Eguna indarbertituta dator eta zein hobea Leire Narbaiza baino festari hasiera emateko? Euskararen alde hainbeste lan egin duen eta egiten diharduen eibartarrak ondo merezitako omenaldia jasoko du zapatuan eta euskararen alde topa egitera gonbidatu gaitu.

Aita Mari Ontziko Izaskun Arriaranek, Irungo Harrera Sareko Ion Arangurenak, Fallow Ndiayek eta Zehar Errefuxiatuekin elkarteko Alberto Cerejok 'Migrazioa ez da delitua. Bizitzak salbatzea ez da delitua' izenburua zuen mahai-ingurua eskaini zuten Portalean Eibarko Udaleko immigrazio zerbitzuaren eskutik.

@etakitto



etakitto.eus



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarterea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

## Astean esanak



Bere buruaz beste egin nahi duenak ez dio bizitzeari laga nahi, gertatzen zaiona da ezin dela bizi. Kasu bakoitza desberdina da, baina sufrimendua dago beti presente. Eta sufrimendu horrekin ezin dela amaitu. Horrela, tunel ilun batean sartzen zara eta irteera bakarria herotzean ikusten duzu. Eta epe laburrean ez zarela hilko dakizunez, horren bila zoaz. Horren aurrean, isiltasunak ez du ezertan laguntzen, baina kondukta horiei buruz berba egiteko estigma eta aurrejuzku asko ditugu. Gazteen artean saiakerak ugariagoak badira ere, helduak baino gutxiago hiltzen dira.

**ANDONI ANSEAN, Suizidioaren Prebentziorako Federazioa**

Hemendik bost urtera herritarren %70entzat mugikorra medikuaren eta bezeroaren interfaza izango da. Gaur egun, kontsultako sendagile bezala, nire denboraren %80a informatikaren aurka borrokatzen ematen dut eta beste %20a pazientea ukitu eta auskultatzeko. Baina kontsulta birtualekin asko aurreratu dezakegu. Zertarako mobilizatuko duzu familia bat edo anbulantzia bat kontsultara joan eta dena berdin dagoela entzuteko? Edo zertarako izango duzu bularreko mina duen bat sei hilabete itxarote-zerrenda batean? Horko %60a ez da zertan hor egon behar: telekontsulta batekin jakin dezakezu larria den edo ez.

**JAIME DEL BARRIO, Osasun Digitalaren Elkarte**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OKER** → Txarto. “Astia oker eginda dagok, egun bat biharra ta sei jai izan bihar litzakezak”.

Ez zuzena, kiribildua. “Akerraren adar okerrak”.

Gaiztoa, bihurria. “Gure zaharrena ogi zatixa, baiña txikiña okerra”.

Ezbeharra, gertakaria. “Okerrrik ez badau bidian, agertuko da bere orduan”.

Errua, akatsa. “Google mapsen erruagaittik, okerreko bidea hartu eta katittuta geratu da kamioia burdibide zaharran”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 30</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 1</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 2</b>
<b>EGUNEZ   Iraundegi</b> (Calbeton, 19)
<b>ASTELEHENA 3</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 4</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 5</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 6</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)

**GAUEZ BETI**, 2022an,  
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Modesto Curras Fidalgo**. 92 urte. 2022-09-24.
- **Epifania Sanz Castrillo**. 85 urte. 2022-09-25.
- **Jesus M. Castillo Barrenetxea**. 77 urte. 2022-09-25.
- **Edel Gracia Medrano**. 92 urte. 2022-09-27.
- **Juan Zabala Uriarte**. 90 urte. 2022-09-27.
- **Maximo Cordon Rodriguez**. 76 urte. 2022-09-28.
- **Ascensión Garcia Bejerano** 76 urte. 2022-09-28.

## Jaiotakoak

- **Ranya Bahar**. 2022-09-20.
- **Aiora Arizmendiarieta Lazpita**. 2022-09-24.



## Sei enpresa proiektu aukeratu dituzte Heldu! ekintzaitza programarako

Ekainean ipini zuten martxan “Heldu!” ekintzaitza programa Udalak eta Debegesak eta, behin aukeraketa fasea amaituta, formakuntza faserako sei proiektu aukeratu dituzte. Kirolari eta bizimodu osasungarriari, ingurumen-kudeaketari eta ingeniari-aholkularitzari lotutako negozio-ideiak aukeratu dituzte, besteak beste. Eibarren enpresa-jarduera berriak sortzea eta eskualdeko ehun ekonomiko eta haren lurralde-lehiakortasuna

indartzea ditu helburu programak eta ekimenak hiru hilabeteko iraupena izango du gutzira.

Orain, laguntza-prozesuaren lehen fasea hasita, parte-hartzaileek formakuntza saioak jasoko dituzte Debegesako enpresa hazitegi berrian, Debegesako pertsonal teknikoak koordinatuta. Parte-hartzaileak formazio espezializatuekin hasi dira eta bigarren fasean adituen aholkularitza eta tutoretza pertsonalizatua jasoko dituzte.

## Nieves Concostrina kazetariak hitzaldia emango du barixakuan

Gerra zibilaren Eibarko bonbardaketen eta gerra-frontearen 85. urteurrena gogora ekartzeko apirilean hasitako programak jarraipena izango du urrian, datorren barixakurako (urriak 7) antolatu dituzten bi jarduerekin: 17:00etatik aurrera gaiari buruzko klarionen tailerra egingo da Urkizun, Lekim Animazioak taldearekin. Eta 19:30ean Nieves Concostrina kazetari eta idazleak “De las tragedias que provocó el golpe de estado al Guernica de Picasso” hitzaldia emango du Coliseo antzokian



## Jon Iraola izango da PSE-EEren alkategaia

Maiatzeko udal hauteskundeetan Eibarko PSE-EEren zerrendaren buru izateko asmoa duela jakinarazi zuen barixakuan Jon Iraolak. Udal-gobernua bi urtez zuzentzen aritu eta gero “herritarren konfiantza lortzeko eta Udala beste lau urtez gidatzeko” asmoa duela adierazi zuen. Bere berbetan, “azken lau urte hauetan, Eibarko gobernutalde sozialistak erakutsi du gure hiriak bere eraldaketarako behar dituen beharrak detektatzeko eta

proiektuak bultzatzeko gaitasuna duela, bere etorkizun hurbilenari eta aurre egiteko, gauden testuinguru ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aurrera egiteko eta Eibar gure inguruko erreferente izaten jarraitzeko”. Bestalde, Ana Telleria Eibarko PSE-EEko idazkari nagusiak azpimarratu zuenez, “Jon Iraolaren abalik onena egin duen lana da” eta Eibarko Sozialisten “erabateko babes” duela gaineratu zuen agerraldian.

## AUTUAN

### 1962. URTEKO KINTOENTZAT AZKEN DEIALDIA

60 urte betetzen dituztenek urriaren 22an ospatuko dute aurtengo kinto eguna: "Eguerdikoa 13:00ean elkartuko gara udal-tertxeko arkupeetan, zerbait hartu eta, 15:00etan, Arkupe tabernara joango gara bazkaltzera. Gauera-ko ere plana izango dugu, Koskor tabernan". Izen ematea burutzeko azken eguna urriaren 8a izango da, eta joan nahi duenak 85 euro sartu beharko ditu, izen-abizenak jarriz, ondorengo kontu korrontean: ES71 2095 5035 00 9112668939.

### URRIAREN 20an IZANGO DA 1945. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

1945eko "kosetxakoek" urriaren 20an ospatuko dute euren eguna, elkarrekin bazkalduta. Aurretik, baina, Untzagan elkartuko dira, 12:00etan, taldearen argazkia egiteko. Izena eman nahi dutenek 70 euro sartu beharko dituzte, kontu korrante honetan (izen-abizenak ipinita): ES23 2095 5035 0091 2181 7291.



### UNBETIK JAISTEKO UDALBUSAREN ORDUTEGIA LUZATU DUTE

Eibarko hainbat kirol-klubek egindako eskaerei erantzunez, astelehenetik barixakura bitartean Unbetik jaisten den Udalbusaren zerbitzuaren ordutegia luzatu egin dute eta, horrela, kirolgunetik jaisteko azken autobusa 20:00etan da astelehenaz geroztik.



## Errebal Bizirik elkarteak Errebalen hezetasun arazoak daudela salatu du

Errebal Bizirik elkartetik igorritako idatziaren arabera, "kezkatuta" daude "oraindik amaitzeke dagoen Errebalgo eraikinean berriz ere hezetasun arazoak" daudela eta. Salatzen dutenez, "lanak egiten aritu diren bitartean etenbarik agertu dira putzu eta hezetasunak, baita garajeak saltzen ari zirenean ere. Hori dela eta, iaizko ekainean, garajeak saltzen hasi baino lehen udal-gobernuari arazo horiek konpontzeko eskatu genion, garajeak behar den moduan entregatu zi-

tzaten. Hala ere, garajeak entregatu zituztela urtebete eskas bete da eta ez da ezer konpondu".

Garajea erosi dutenek 17.000 eta 29.000 euro bitartean ordaindu dituztela gogora ekarri dute eta, gauzak horrela, lanak egin dituen enpresari "lanak amaitzea eta arazo guztiak konpontzea", baita udan parkingean egindako konponketen kostua enpresa eraikitzaileak bere gain bere gain hartzea exijitzeko eskatzen diote Udalari. Eta bilera irekia egin dezala, "alderdi

## Agiña Elkarteak egun osorako programa prestatu du domekarako

Sanmigelak ospatzeko egitarau zabala prestatu du Agiña Elkarteak domekarako: 11:00etako mezarekin eta hamarretakoarekin hasiko dute eguna, eta 12:30ean Gorixo eta bere abereen txanda izango da; 14:30ean. Paella-jana herrikoia egingo dute, eta 17:00etan erromeria egingo da, DJ Arnok alaituta.





## Pentsiodunek manifestazioa antolatu dute bihar eguerdirako

Urriaren lehen Adinekoen Eskubideen Aldeko Eguna dela eta, biharko mobilizazioak antolatu ditu Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak EAE-ko eta Nafarroako hiriburuetan eta eskualde ezberdinetan, baita Debabarrenean ere. Gure eskualderako deitu duten manifestazioa 12:00etan irtengo da Untzagatik eta, aldarrikapen nagusiak, gainerako herrietan bezala, gizarte-zerbitzu publiko eta kalitatezkoak, eros-teko ahalmena berreskuratzea, KPI erreala aplikatzea eta, jakina, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa izango dira.

Debabarreneko pentsiodunen mugimendutik herritarrei eta, bereziki, adinekoiei eta pentsiodunei, manifestazio horretara joateko deia egin dute: “Izan ere, pentsioak eta zerbitzu publikoak, berdin dio zeinek agintzen duen, beharrezkotzat jotzen ditugu”. Horien aldeko

borrokan, astelehenero kontzentrazioak egiten jarraitzen dutela gogora ekarri nahi dute. Eibarren, batez beste, 125 lagun inguru bildzen dira asteroko mobilizazioetan. Aste honetako mobilizazioan bankuen “jardunbide txarrak” salatu dituzte eta, horiek aldatzeko eskaerekin mozioak aurkeztu zituztenetik hainbat gauza hobetu direla aitortu arren, oraindik ere beste kontu batzuetan hobetu beharra daukatela nabarmendu zuten.

Era berean, gogorarazi nahi dute urriaren 15ean Madrilera joango direla, estatu mailan bildu dituzten milaka sinadurak Diputatuen Kongresuan entregatzeko (Euskadin, 7.000 baino gehiago), “Gobernari eskatzeko errespetatu dezala pentsioen errebalorizazioa, benetako KPI aplikatuta, eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatu dezala”.



## Arraguetako etxe zaharrak bota ahal izateko aurrelanak hasi dituzte

Arragueta kaleko 17. eta 19. zenbakiak eraisten hasteko lanean ari dira egunotan. Aipatutako eraikinarik erortzeko zorian zeudela eta, martxoan atera zituzten bertan getratzen ziren bizilagunak eta, ondoren, inor bertara ez sartzeko neurriak hartu zituzten. Eraikin bien jabeek horiek erausteko proiektuak aurkezteko eskatu zitzaizkien eta hori ere egin zuten, baina, eraisketak hasi aurretik, etxeetan dagoen amiantoa protokolo berezi bati jarraituz kendu beharra dagoela eta, horretan ari dira orain lanean.



## Beldur Barik lehiaketaren edizio berria martxan

Azaroaren 11ra arteko epea dago Beldur Barik lehiaketako 13. ediziorako lanak bidaltzeko. Abendura bitartean ikus entzunezko lehiaketan parte hartzeko gomendio, aholku eta laguntza edukia zabaltzen joango dira beldurbarik.eus webgunean. Bertan daude oinarriak ere.





## Urriaren 8rako egitarau betea prestatu du Sarek

Euskal presoen eskubideen alde aspaldi egin den mobilizaziorik handiena antolatu du Sarek urriaren 8rako Donostian, "Etxera bidea gertu" goiburuari jarraituz. Mobilizazio orokorra 11:00etan hasiko da, Bulebarrean, eta 12:00etarako manifestazioa deitu dute. Egitarauak Illunben jarraituko du, 15:30ean hasiko diren kontzertu eta jaialdiarekin: Belako, Rotten XIII, Esne Beltza, Su Ta Gar, Zea Mays, Liher, Doctor Deseo, Eñaut Elorrieta, Josu eta Gari (Hertzainak), Dupla, Sua, Andoni Oilokiegi, Trikidantz, Ttek elektrotzaranga, Porrotx, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus... Sarre-rak Internet bidez eros daitezke (sare.eus).

## Debabarreneko enpresek ingurumenaren aldeko apustua egin dute

Asteklima Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearekin batera, Debabarreneko udalek, Debegesaren eskutik, eskualdeko industria-enpresen ingurumen-jardunbide egokiak balioesteko ekimena abiatu dute. Ekimen horretan, orain arte, eskualdeko hamahiru industria-enpresak hartu dute parte: ABC Compressors, Bronymec, Danobat, EPC, Gráficas Juaristi, Herve, HRE Automation, Schaeffler Iberia, Naberan Sareak, ScrapAd, Ascensores Beltran, SITAB eta

Grupo Unceta. Enpresek beraien jardunbide egokiak partekatu dituzte bideo eta laburpen-fitxen bidez eta Debegesaren web orrian ([www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus)) ipini dituzte eskuragarri.

Enpresa guztien praktikak kon-tuan hartuta, CO2 emisioak 2.139 tona murriztuko direla kalkulatu dute. Ekimena irekia da eta enpresa gehienek beraien ekarpena egitea espero du Debegesak. Interesatuek 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete



# Eibar

## Urriak 8

## Udako azoka ekologikoak

Sasoikoa, tokikoa eta ekologikoa

AZOKA: 10:00 / 14:00 Untzaga plazan

GUTIZI EKOLOGIKOAK: 12:00

(sukaldaritza erakustaldia eta haragi-dastaketa)

**Antolatzaile:**

**Babesle:**

# Debabarrenean, hitzetatik ekintzara



**A**zaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egingo da Euskaraldia eta Debabarreneko herri-batzordeak ekimenerako prestatzen hasi dira. *Hitzez ekiteko garaia* da edizio honetako leloa eta, horregatik, hitzetatik ekintzara pasatu dira eskualdean.

Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ere *ahobizi / belarriprest* dinamika erabiliko da eta, norbanakoez gain, entitateek ere hartuko dute parte ariguneak osatuz; hau da, entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, erakunde, zerbitzu, enpresa...) euskaraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak.

Aurtengo helburu nagusia ariketaren eragina handitzea da. Horrela, alde batetik,

norbanakoez gain, entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak egitea espero da; eta bestetik, *ahobizi, belarriprest* eta *arigune* gehiago izatea.

Parte hartu nahi duten entitateek maiatzetik dute zabalik izena emateko epea eta norbanakoena irailaren 28an hasi zen. Izena emateko, aurreko edizioaren batean parte hartu zuten herritarrek

# EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA  
2022



eta entitateek mezu elektronikoa bat jasoko dute izen-ematea berresteko, hala nahi badute behintzat, edo datuak aldatzeko. Parte-hartzaile berriek, ostera, *euskaraldia.eus* webgunearen bitartez eman dezakete izena.

Azaroan hasiko den ariketari begira berotzen joateko, Euskaraldiaren gune ibiltaria herriz-herriz ibiliko da informazioa helarazten eta

jarduera ezberdinak egiten. Horrela, urriaren 20an Ermuan egongo da, 26an Sorluzen, azaroaren 10ean Elgoibarren eta 12an Eibarren.

Gune ibiltariaz gain, zenbait ekintza egingo dira Euskaraldia hasi aurretik. Batetik, #HitzezEkiteko ekimenak egingo dira Euskal Herriko herrietan eta, horren bitartez, herritarrek beraien lorpenak eta helburuak bistaratuko dituzte paneletan. Bestetik, formazio eskaintza, aholku-saioak eta bestelako tresnak eskainiko zaizkie *ahobiziei*, *belarriprestei* eta *ariguneak* osatzen dituzten kideei. Eta azkenik, hizkuntza ohiturak eremu digitalean ere jokatzen direlako, *Zapia!* izeneko plaza digitala sortuko dute Instagramen eta Twitterren.

# Nolako izan da zure esperientzia Euskaraldian?

## JON ANDER URAIN

Euskaraldiaren dinamizatzailea - Deba



Euskaraldiaren aurreko edizioetan, *ahobizi* izan naiz. Aurten, ordea, *ahobizi* izateaz gain, Debako dinamizatzaile lanetan ere banabil. Oraintsu, irailaren amaieran, herri batzordea jarri dugu martxan eta abiada hartzen goaz. Entitateek *ariguneak* sortzeko ahalegina egingo dugu urriaren erdialdera arte eta, horrez gain, hemendik aurrera, norbanakoen izen emateari helduko diogu. 2022ko edizio honetan ere, tabernen, saltokien, norbanakoen... hizkuntza ohituretan eragiten saiatuko gara. Hala ere, lagun arteko hizkuntza ohitura aldaketetan jarriko dugu arreta. Horregatik, Euskaraldiaren ariketa ondo egiteko, *ahobizi* edo *belarriprest* norbanakoen rolen aukeraketa egokiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, konpromisoak eta jokaerak gaitasunak berak baino garrantzi handiagoa dutela argi utziz.

## JOSU LEUNDA

Teknikerreko Euskaraldiko arduraduna - Eibar



2018an gogotsu ekin genion Euskaraldiaren lehen edizioari eta apiriletik hasi ginen Euskaraldiaren dinamikan pixkanaka murgiltzen. Azkenik, Euskaraldiari zegozkion 11 egunetan, guztira 90 lankide inguruk (60 *ahobizi* eta 30 *belarriprest*), paparrean txapak jarri eta euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, bai eta neurri handi batean bete ere. Euskaraldiaren bigarren edizioak pandemia bete-bete harrapatu gintuen, eta egoera honek ez zion batere lagundu dinamikari. Batetik, lankideon arteko aurrez aurreko harremanak asko mugatu zituen; eta bestetik, lankideen parte hartzea lortzea ere zailagoa egin zitzaigun, giroa erabat hoztuta baitzegoen. Gainera, *ariguneak* osatzea tokatu zitzaigun eta 11 *arigune* osatu genituen.

## IXAKA EGURBIDE

IMH Campus-eko zuzendaria - Elgoibar



Euskaraldia ekintza gakoa izan da gure euskara planaren jarraipenari indarra emateko. Ariketa kolektiboa den heinean, euskaldun aktiboa izatearen kontzientzia areagotu eta hainbat joera apurtzeko balio izan digu. Beste hainbat enpresa eta herritarrekin batera Euskaraldia "praktikatzen" dugula ikusteak babes-sentimendua eta konfiantza eman digu Euskaraldiak dirauen bitartean elkarrizketa elebidunei eusteko, eta zenbait kasutan Euskaraldiaren ondoren ere bai.

Ziur gaude aurtengo Euskaraldiak gure campusa osatzen duten kideen hizkuntza ohituren berritara eragin eta euskararen erabileran beste bultzada bat ematen lagunduko digu.

## DAVID GOMEZ

Dendaria - Ermua



Ermuko Euskaltzaleen Sarea eta Ermuan Bagara ekimena sortu zirenetik, modu aktiboan jardun dute euskara bultzatzeko helburua duten ekintzetan. Horren harira, Euskaraldiko bi edizioetan ere parte hartu izan dut, *ahobizi* rolean, eta talde eragilean hainbat lan burutu ditut, tartean egitasmoari buruzko informazioa herritarrei zabaltzea eta izenak jaso, kalean jarritako informazio puntuetan. Egindako lan horri esker, euskaraz aritzen den jende asko ezagutu dut, eta ondorioz, gero eta gehiagorekin hitz egiten dut euskaraz nik neuk ere. Horrez gain, gure denda *arigunea* izan zen azken edizioan (*arigune* bezala izena eman zuten lehen entitateak Ermuan, hain zuzen ere), eta ordutik nabaritu dut gaztelaniaz hitz egiten ziguten bezero askok euskaraz hitz egiten digutela orain, aldaketa egin dutela.

## ROBER RODRÍGUEZ

Euskara ikasle ohia - Mallabia



Euskaraldiko bi edizioetan parte hartu izan dut, betidanik izan dudalako euskara bultzatzeko nahia. *Belarriprest* rolean aritu izan naiz eta, lehenengo edizioari esker, laneko hizkuntza ohiturak aldatu nituen, eta ordutik lankide batzuekin euskaraz hitz egiten dut. Ordutik ere, naturaltasun osoz nahasten ditugu euskara eta gaztelania kuadrillan. Ezezagunekin, aldiz, onartu beharra daukat erosoagoa egiten zaidala gaztelaniaz hitz egitea, oso lotsatia naizelako eta uste dudalako hobeto adierazi ahal izango dudala esan nahi dudana. Puntu horretan gaudenontzat, muga, ulertu bai baina hitz egiten ausartzen ez garenontzat, Euskaraldia oso mesedegarria da, konfiantza hartzen laguntzen digulako. Dena den, euskararekin tematzea da kontua eta, ez badago benetako interesa, egindako guztia alferrik da.

## LURDES RODRIGUEZ

Administraria - Mendaro



Ariketa interesgarria iruditu izan zait beti Euskaraldia eta aurten ere badut parte hartzeko asmoa. Orain artean, baina, *ahobizi* izan naiz, eta oraingoa *belarriprest* rola aukeratuko dudala uste dut. Lehen hitza euskaraz egiteko joera hori badut, baina eginda ere, ez zidaten nik nahi bestek egiten euskaraz. Euskara gehiago entzun nahi dut, eta pentsatu dut beharbada paparrean *belarriprest* txapa jarrita gehiagok egingo didatela. Ez dakit, baina probatuko dut. Iruditzen zait oraingoa jende gehiagok parte hartuko duela eta badut ilusioa. Aurrekoa ez zen nik nahi bezain ikusgarria izan, egia esan. Ez nuen nahi besteko mugimendua sumatu nire bueltan. Uste dut pandemiak min handia egin ziola ariketari berari, baina orain beste testuinguru batean gaude eta emaitza beste bat izango dela sinetsita nago.

## AINHOA AIZPURUA

Haur Hezkuntzako irakaslea - Mutriku



Euskaraldiko lehenengo urtea Bilboko giroan bizi izan nuen; unibertsitatean nenbilen garaian, hain zuzen ere. Hizkuntzari dagokionez, ezohiko giroa niretzat; ekimen edo ariketa sozial hark sorrarazi zidan sentsazioa, aldiz, benetan arraroa. Euskararen arnasmune (oso herri euskaldun) batetik hara joan eta... bai, nik bizi izan nuen giroari dagokionez behintzat, soinean generaman *belarriprest* edo *ahobizi* ikurra etiketa edo postureo hutsa zela iruditu zitzaidan. Mutrikuarra izanik, eta oso euskaldun giroan bizi izanik, egoera hark erabat amorratu ninduen, euskaldun izatea ez baita Euskaraldian pin bat jartzera mugatzen. Zorionez Mutriku bizitzeak euskaraz bizitzea ahalbidetzen dit eta aitortu beharra daukat askotan ez naizela ohartzen esku artean dugun altxorraz. Neurri batean behintzat, Euskaraldiak horretaz gehiago jabetzea eta garenaz harro sentiaraztea eragin dit.

## ESTHER CRUZ

HEFA-Ieko Practicum eta GRAL Dekanordea - Soraluze



Hasieratik parte hartu dut Euskaraldian, *belarriprest* rolean. Esan dezaket Euskaraldiak asko laguntzen duela hizkuntza ohiturak aldatzen. Adibidez, norbaitekin beti gaztelaniaz komunikatu bazara, oso zaila da ohitura aldatzea. Aldiz, Euskaraldiari esker, kuadrillako lagun batekin, bakarrik gaudenean euskaraz egiten dugu. Lantokian, lankideen arteko harreman formalak euskaraz izan arren, leku informaletan, kafe-makinaren bueltan, adibidez, gaztelaniara jotzen dugu; Euskaraldia datorrenean, berriz, euskaraz jarduten gara. Beraz, Euskaraldiak eragin handia dauka. Anekdotak modura, familian (familia osoaren etxeko hizkuntza gaztelania da) beti bizi izan gara gaztelaniaz, nahiz eta Euskaralditik semeekin euskaraz egiten ahalegindu. Bada, orain gutxi, semeak Maltatik deitu zidan eta hango lagunak euskaraz bizi zirenez, lehen aldiz berak ere euskaraz egiten zidan. Halakoetan ikusten da zein inportanteak diren hizkuntza ohiturak.



Aurtengo San Juan jaietan ere hainbat joko ezagutzera ematen egon ziren Odisea elkarteak Errebal Plazan, egitarau apalago batekin.

## Odisea elkartearen Ulisesen Jokoak ez dira haur jolas soilak

Aurten 10 bete dituela eta, horren aitzakiarekin, Odisea elkarteak "Ulisesen Jokoak" izeneko ekitaldia antolatu du hurrengo zapatarako, Errebal Plazan. Goizetik hasita, era guztietako mahai-jokoetan aritzeko, Warhammer 40K moduko joko arrakastatsuetan leihatze eta horrelako kontuetan maisuak direnei begiratuta ikasteko aukera egongo da, ilundu bitartean. Eguna betetzeko moduko plan biribila.

Egun osorako egitaraua prestatu dute urriaren 8rako, goizeko 08:00etan hasi eta 20:30ean amaitzeko: 100 joko baino gehiagoko ludoteka, txapelketak, rol-jokoak, erakustaldiak... eta parte hartzen duten guztientzat zozketak ere egingo dituzte.

Egitarauari jarraituta, hainbat jarduera egun osoan zehar egingo dira: mahai-jokoan ludoteka, *Warhammer 40.000* txapelketa (08:00etan hasita) eta *Blood*



*Bowl* txapelketa (09:45ean hasita). Horrez gain, goizean zehar beste hauek eskainiko dituzte: *Aristeia* txapelketa (09:00etan); *Star Wars Legion*, *Exploradores de las profundidades sombrías* eta *Marvel Crisis Protocol* jokoan erakustaldiak; eta *Blade Runner* (10:00etan), *Llamada de Cthulu* (11:30ean) eta *Kids on bikes* rol-jokoan partidak. Eta, arratsalde-rako, beste hauek antolatu dituzte: *Crokinole* txapelketa (17:00etan), *Symbaroum* (17:00etan), *Savage Worlds* (17:00etan) eta *Sistema impulso - Nueva Pangea* (17:00etan) rol-jokoan partidak; *Shikoku* txapelketa (18:30ean); eta *Marvel Crisis Protocol* eta *Canción de Hielo y Fuego* jokoan erakustaldiak.

Jarduera bakoitzaren inguruko informazio zehatza, bestalde, Odisea elkartearen web orriari eta sare sozialetan (Twitter, Facebook eta Instagram) kontsultatu daiteke eta, edozein zalantza izanez gero, [contacto.odiseaeibar@gmail.com](mailto:contacto.odiseaeibar@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.

### Hamar urteko ibilbidea

Odisea elkarteak 2012an sortu zen mahai-jokoak, rol-jokoak, wargameak (gerra-jokoak), estrategia-jokoak, karta-jokoak eta gisa horretako jokoak eibartarren artean ezagutzera eman eta hedatzeko asmoarekin. Hasieran Portalean biltzen ziren, baina 2017az gerotik, Barrena kalean du egoitza elkarteak. Gaur egun 25 bazkide inguru dira eta, adinari begira, oso tarte zabala hartzen dute, gainera. Diotenez, horrelako jokoetan aritzeko lagun bat baino gehiago behar denez, harremanak sustatu eta lagun berriak egiteko oso egokiak dira. Jakinmina piztu bazazue, Errebalen izango duzue bertatik bertara ezagutzeko aukera.



Urriaren 9an hasiko diren tailerretan hondakinak murrizten ikasi izango da.

## “Berrerabili eta berrasmatu” tailerren edizio berria abiatu da

Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, “Berrerabili eta berrasmatu” tailerren edizio berri bat antolatu du hurrengo hilabeteetarako. Urriaren 19an hasi eta abenduaren 13an amaituko dira. Helburua da erabilitako objektuak berrerabiltzea, birziklatzea eta konpontzea sustatzea, objektuei balio erantsia emanez eta bizitza erabilgarria luzatuz. Dagoeneko izena eman daiteke lehen tailerretan.

13 tailer izango dira guztira, eta 230 lagunentzako lekua egongo da. Tailer gehienak helduentzat dira, baina lau haurrentzat bakarrik izango dira, eta hiru talde espezi-fiko familientzat. Tailerren gaiak askotarikoak izango dira: elikadurarekin lotutako alderdiak, zurgintza, joskintza, bizikletak edo tresna elektronikoko eta elektrikoak...

Izen-ematea bi txandatan egingo da. Lehen txandarako, hau da, azaroaren 15era arteko tailerretarako, izen-emate epea zabalik dago eta

**Etxean ditugun objektuak eta materialak modu atsegin eta ludikoan aprobeztatzeko ideia berriak jaso daitezke**

urriaren 9an itxiko da. Eta tailerren bigarren txandarako (azaroaren 15etik aurrerakoak), izen-emate epea urriaren 24an hasi eta azaroaren 6an amaituko da.

Antolatzaileek diotenez, “tailer horien bitartez, herritarrei tresnak eskainiko zaizkie euren sormena praktikan jarri eta kontsumo-ohituretan eragiteko, eta horrek zuzenean lagunduko du hondakin gutxiago sortzen, birziklatzea sustatzen eta jatorrian hondakinak behar bezala bereizten; gainera, ingurumena errespetatzeko jarrerak eta balioak sustatuko dira. Etxean ditugun objektuak eta materialak modu atsegin eta ludikoan aprobeztatzeko ideia berriak jaso daitezke, familiako kide guztiak inplikatu”.

### Herriko hainbat lekutan egingo dira tailerrak

Saio guztiak Eibarko hainbat entitatekin elkarlanean antolatu dira, eta haien instalazioetan egingo dira. Entitate laguntzaile horiek tokiko sei saltoki dira (El Taller de Manualidades, Eskusutxo, Zorionak Ludoteka, Farmacook, Harixan eta Adarabar); horietaz gain, Eibarko Klub Deportiboa eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua. Tailer guztiak leku horietan egingo dira, udal instalazioetan egingo den bizikletak konpontzeko tailerra izan ezik.

Modu horretan, herritarrek Eibarren berrerabilera, birziklapena eta konponketa sustatzeko dauden espazioen kopurua eta aniztasuna identifikatu ahal izango dituzte.

Informazio guztia



# “Ekingunen esaldi motibazionalak gustatzen zaizkigu, baina bidea ez da beti polita izaten”

LEIRE BERASALUZE • Ekinguneko presidentea



Ekingune ekintzaile elkarteak 10 urte beteko ditu urrian. Ekintzaileen arteko lankidetzarako eta sustapenerako sortutako egitasmoa da eta, egoitza Eibarren eduki eta bazkide gehienak hemengoak izan arren, baditu beste herri batzuetako kideak ere. Leire Berasaluze eibartarra da elkarteko presidentea eta, ekintzaile izaera edukiz, baikor begiratzen dio etorkizunari.

**U**rte berezia izanik, urriaren 27an On Ekin lehiaketaren edizio berezia ospatuko dute Errebalean. Izena emateko epea zabalik dago ekingune.com webgunearen bitartez. Dena dela, euren jarduna ez da horretara mugatzen, ezta inolaz ere, eta atzo Marketing Day ekimena egin zuten Ipurua zelaiko instalazioetan, marketingaren inguruko adituak ekarriz eta gaiaren inguruan herriko ekintzaileei aholkuak emanez.

## Marketing Day egin zenuten atzo Ipuruan. Zein helbururekin?

Nazioarte mailan kontsumoa eta kontsumitzaileak asko aldatu dira (krisialdiagatik, pandemiarengatik, digitalizazioa...). Enpresa handiek badituzte horrelako aldaketei aurre egiteko baliabideak (marketing edo komunikazio taldeak), baina enpresa txikiek, dendariak edo autonomoek ez dute hori egiteko inor eta euren jakintzak eguneratu behar dituzte. Orduan, euren gan pentsatuz, lau aditu ekartzea pentsatu genuen, interesatuek galderak egin, mahai-ingurua sortu eta elkar ezagutzeko.

## Horrelako ekintzekin Ekingune herrira zabaldu nahi duzue? Ekintzaileei laguntza eman?

Esaten dugun bezala, “ekintzaile izatea bizitzeko modu bat da”. Denda bat sortu duenak badaki kontua ez dela denda zabaltzea eta kitto. Etengabe egon behar gara merkatua nola dabilen ikusten, kanpaina berriak sortzen, proiektu edo produktu berriak nola saldu ikusten... Ekintzaile mota ezberdinak daude. Dendariak, adibidez, ekintzaileak dira. Gero, badaude beste batzuk enpresa sortuta dutenak, baina beste adar, produktu edo zerbitzu bat martxan jartzen dutenak. Hori ere ekitea da, barne-ekintzailtza.

## Mundu aldakor honetan, ekintzaileentzat hobe da indarrak batuta aurrera egitea Ekingune moduko elkarte batean?

Bai, eta hainbat gauzatan ikusi daiteke hori. Batetik, ekiten duzunean bakarrik sentitzen zara. Batzuetan ez dakizu nondik jo. Laguntzak eta programak daude, baina enpresa martxan jartzen duzunean, gero zer? Ez da erraza eta batzuk hor geratzen dira ez dituztelako bezeroak lortzen, arazoak kudeatzeko orduan ez dutelako asmatzen ... Gu geu gara ekintzaileak, guk egin behar ditugu gauzak, ez dugu inor gainetik zer egin esateko. Ekingunen esaldi motibazionalak gustatzen zaizkigu, baina bidea ez da beti polita izaten. Egun laztzak daude eta, batuta egonda, jendeari lagundu nahi





Leire Berasaluzek elkarrekin lan egitearen garrantzia azpimarratzen du. EKHI BELAR

diogu. Bestetik, laguntzak eskatzeko orduan ez da gauza bera zu bakarrik aurkeztea edo talde moduan joatea. Laguntza gehiago lortzen dira elkarrekin joanda eta, gainera, jende gehiago ezagutzen dugu. Eta ez badugu laguntza lortzen, bideratzea lortzen dugu. Beraz, ez dut esango elkarrekin joanda errazagoa denik, baina laguntzen du.

**Ekingunek 10 urte beteko ditu aurten. Zer prestatu duzue ospatzeko?**

Antolatu ditugun ekitaldiei indar gehiago eman nahi izan diegu, Marketing Day-n ikusi den bezala. Ez dugu gehiegi aurreratu nahi, baina On Ekin negozio-ideien lehiaketaren sari banaketa urriaren 27an egingo da, Errebalen, eta aurten sariak oraindik hobekak izango dira. Azken bi urteotan, pandemiaren ondorioz, ez gara oso gustura gelditu On Ekinen saioekin, ezin izan garelako ia elkartu ere egin. Beraz, aurten, pandemia atzean lagata eta 10. urteurrena dela aprobetxatuz,

**“Ekintzaile izatea bizitzeko eta izateko modu bat da eta, gauzak gogor badatoz, gu ere gogor jartzen gara eta egokitu egiten gara”**

zeozer polita egin nahi dugu. Gainera, lehiaketa ez da parte-hartzaileek dirua irabazteko gauza bat bakarrik: jendea ezagutu daiteke, elkarrekin proiektuetan parte hartzeko aukerak sortu daitezke, zure proiektuak benetan balio duela sinesteko balio dezake...

**On Ekinen palmaresa ikusita, proiektu askok berretsi egin dute euren inguruan esandakoa, martxa betean jarraitzen baitute.**

Elkarrizketaren bideoa



Baten bat bidean gelditu da, baina askok aurrera jarraitu dute. Aurtengo edizioan, gainera, omenaldia egin nahi diegu aurreko edizioetan parte hartu dutenei. Saria irabazi duten enpresa batzuk oso ondo dabilta eta pozten gara.

### **Pandemia aipatu duzu lehen. Nola eragin dizue Ekingunen?**

Ekingunen gauden enpresak ezberdinak gara eta batzuk igarri dute pandemiaren eragina, ezin izan dutelako lanik egin. Bestetik, proiektu asko teknologia berrietara egokitu egin behar izan dira eta azkartu egin dute digitalizaziorako bidea. Esan bezala, ekintzaile izatea bizitzeko eta izateko modu bat da eta, gauzak gogor badatoz, gu ere gogor jartzen gara eta egokitu egiten gara. Beraz, ondo moldatu gara, nahiz eta pandemia gogorra eta luzea izan den.

### **Aurrera begira asmo berriak dituzue esku artean?**

Azken urteotan konturatu gara bi motatako ekintzaileak ditugula. Batzuk berriak dira, ilusio askorekin datoz eta gaitasun batzuk garatu behar dituzte negozioari etekina ateratzeko. Beste batzuek, ostera, urte asko daramatzate ekiten. Orduan, elkartean jende berria behar dugula uste dut, lehendik gaudenok beraiei laguntzeko eta, era berean, eurek freskotasuna ekartzeko. Gauza eta ideia asko ditugu buruan, baina gero bakoitzak bere lana egin behar du eta orduak sartu behar ditugu denera iristeko. Ikusiko da zer egin dezakegun, baina ideiak eta asmoak baditugu. Gainera, gure jarduna beste herri batzuetara hedatu nahi dugu.

### **Erakundeek ekintzailetasuna bultzatu dute azken urteotan, laguntzak eman dituzte... Nahikoa da?**

Inoiz ez da nahikoa (barreak). Aurten, Eibarko Udala oso ondo portatu da gurekin eta, esan digutenez, egoitza bat edukitzeko aukera emango digute. Gainera, koordinatzaile bat lortu dugu elkarterako eta demaseko lorpena da. Laguntzen arabera gehiago edo gutxiago egingo dugu.

### **Nolako da zuen jarduna Ekingunen?**

Hilabeteko lehen barixakuan hamaiketako egiten dugu eta, bertan, norbaitek gai bati buruz egiten du



Leire Berasaluze atzoko Marketing Day egitasmoan. YANIRE SAGREDO

**“Elkartean jende berria behar dugula uste dut, lehendik gaudenok beraiei laguntzeko eta, era berean, eurek freskotasuna ekartzeko”**

berba, bakoitzak bere alorrean. Horrela, jakintzak partekatzen ditugu eta networking moduko bat egiten dugu. Gero, zuzendaritza batzordea gehiagotan elkartzen da antolatzen ditugun ekitaldiak nola doazen ikusteko, besteak beste.

### **la bi urte daramatzazu presidente. Nolako bidea izan da?**

Hasieran sustoa hartu nuen, baina asko ikasi dut. Asko lagundu didate eta oso aberasgarria izan da niretzat. Taldekide batek dioen bezala, gauza asko lortu ditugu enpresa mailan, baina gehienbat ikasketa kontua izan da, demaseko ikasketa pertsonala egin dugulako.

# Euskaraz dastatu



**URRIAK 1 (zapatua) - UNTZAGA PLAZAN**





Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak ekarriko du sagardoa, hamahiru sagardotegitatik: Alorrenea, Altzueta, As-tarbe, Barkaiztegi, Begiristain, Bereziartua, Gartziategi, Gaztañaga, Izeta, Lizeaga, Olaizola, Sarasola eta Zelaia.



Marisol Arrillagak eta trikitilariak eta KIMUko txalapartariak girotuko dute goiza musikarekin. Aintzane Azkaratek botako du irrirtzia aurten.



Zortzi euroko tiketa erositara nahi beste sagardo probatzeko edalontzia, zapia eta pintxoak hartzeko aukera izango dugu; txorizo- edo gazta-pintxoak bera bakarrik bi eurotan salduko da.



Sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolorea izango du ikusgai. Kiriketarekin sagarrak txikitzeko aukera izango dugu.



## EUSKALZALETASUNARI SARIA



Sagardo Egunaren XXVII. edizioan omenaldia egingo zaio euskararen alde horren lan handia egin duen eta egiten diharduen Leire Narbaizari. Euskara-irakasle, euskalgintzako militante, hainbat hedabidetako kolaboratzaile, tartean ...eta kitto! astekarikoa, egindako guztia eskertu eta errekonozituko zaio Sagardo Egunaren hasieran.

Urriaren 1ean bertan, iluntzean, **LUXUZKO ASTEBURUA** zozketatuko du ...eta kitto!-k. Sagardo Egunean bertan ere egongo dira salgai rifak, euro baten, eta zozketatuko den saria hau izango da: urriaren 22-23ko asteburua Bilbon. 22an afaria El Viejo Zortzi jatetxean; gaua eta gosaria Carlton hotelean eta 23an bazkaria Bistró Guggenheim Bilbao jatetxean.

ZOZ  
KET  
TA





Barraren bestaldean ezeze, barruan ere jende ugari behar izaten dugu dena behar den moduan antolatzeko, eta lantalde izugarria izaten du Sagardo Egunak atzean: bazkideak, lagunak, etxeakoak...  
... eta kitto!-k antolatzen dituen ekintzen artean hau izango da lantalde handiena elkartzen duena.



## #sagardoetakitto Instagram LEHIAKETA

Lehiaketaren oinarriak:

- 1- @gaztekitto Instagram kontuaren jarraitzaile izan.
- 2- Eibarko Sagardo egunean ateratako argazkiak igo Instagramera, #sagardoetakitto traola erabiliz.
- 3- @gaztekitto etiketatu.

**Argazki originalenaren egileak 13 sagardotegitako botila bana jasoko du. Animatu eta parte hartu!**

## Berbetan jaialdia ospatuko da egunean

Datozen egunotan Berbetan egitasmoak ikasturte berriari ekingo diola ospatzeko jaialdia antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak hurrengo asteko egunean, urriaren 6an. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da jaia Untzagan, harmailen aldean, eta 18:30 era arte dibertitzeko makina bat ekintza izango dira: puzgarriak, jolasak, zirkuituak... 2 eta 8 urte bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute eta doakoak izango dira.

Aurten hiru egitasmo eskainiko ditu ...eta kitto!-k: bate-tik, Berbetan, astean behin euskara praktikatzeko taldeak; bestetik, Gurasoak Berbetan, familia-giroa euskalduntzeko ekimena, eta, hirugarrenik, aldi bateko etenaldiaren ondoren, berriro itzuliko da Ongietorri egitasmoa, kulturartekotasuna bultzatzeko programa. Datorren astean aurkeztuko ditu ...eta kitto!-k hiru egitasmoak, eta bertan emango da parte hartzeko informazio guztia. Horrez gainera, Haur Hezkuntzako eta LHko 1. eta 2. mailetako ikasleak eskolan bertan ari dira informazioa jasotzen egunotan.



## Kokedamak egiteko tailerra urrian

Lorontzirik gabe hazten diren landareak prestatzen ikasteko tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Ilunabarrian programaren barruan. Ikastaroa urriaren 18an izango da, 18:30etik 20:00etara euskara elkartearen egoitzan. Japoniatik datorren teknika artistiko horrekin landarea lurra eta goroldioarekin estali eta babesten da, eta ez du lorontzirik behar izaten. Gainera, tailerlean kokedama zintzilikatzeko euskarria ere egingo da, makramea erabiliz. Urriaren 3tik 11ra arte eman ahal izango da izena, 943200918 telefonora deituz edo elkarte@etakitto.eus helbidera mezua bidaliz. Izen-emateak 5€ balio du.

## Bertso-paper lehiaketako epea zabalik

Urriaren 3an hasi eta azaroaren 4ra arte luzatuko da San Andres bertso-paper lehiaketara lanak entregatzeko epea. Maila bi izango ditu aurten ere: batetik, Eibarko 16 urtetik beherako ikasleek bertso bat edo bi koplak aurkeztu beharko dituzte, eta, bestetik, 16 urtetik gorakoek (Euskal Herri mailan), lau puntu edo gehiagoko sei bertso aurkeztuko dituzte gutxienez eta 10 gehienez. Lanen hiru kopia entregatuko dira gaitzizenaekin (gutunazal itxian egilearen datuak) honako helbide honetan: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuartea. 20600 Eibar. Gaztetxoan mailako irabazleak txapela irabaziko du eta bigarrenak plaka. Helduen mailako irabazleak, berriz, 300€ eta bigarrenak 250€. Saritu guztiek azaroan egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Animatu eta parte hartu! Zuen lanen zain gaude.

# “Topa egin dezagun euskararen alde: Eibarren euskara indartzeko, erabiltzeko... eta gure alde”

LEIRE NARBAIZA • *Sagardo Egune*ko omendua



Sagardo Eguna indarberrituta dator eta zein hobea go Leire Narbaiza baino festari hasiera emateko? Euskararen alde hainbeste lan egin duen eta egiten diharduen eibartarrak ondo merezitako omenaldia jasoko du zapatuan eta euskararen alde topa egitera gonbidatu gaitu.

**O**menaldia jasotzeko hain zaharra ez dela esan omen diote gertukoek (ez dugu esan-go nork). Berak umil jasoko du omenaldia, egindako guztia taldean egin dela aldarrikatuz. Horrela da, baina bere parte hartzea berebizikoa izan da. Euskara irakasle, blogari, iritzi-emaile... Euskara ardatz, mila tokitan ikusi izan dugu Leire, baita ...eta kitto! Euskara Elkartearen hastapenetan ere. Maitasun handiz gogoratzen ditu sasoi horretan egindakoak.

## **Nola sentitzen zara omenaldiaren aurretik?**

Pixka bat harrirituta, lotsatuta ere. Pozik, horrelako errekonozimendu bat jasotzea pozik egoteko moduko zerbait delako, baina pentsatzen dut neure moduan beste hamaika pertsona daudela Eibarren horrelako omenaldi bat jasotzeko.

## **Euskararen aldeko lana egiten duzu zenbait alorretatik. Zergatik egin duzu hau hori?**

Horrela tokatu zaigula uste dut. Euskaldunak izanda ez dugu beste erremediorik, bestela akabo. Eskubideak lortzeko borroka egin behar da, hori emakumeok ondo dakigu. Gaztea nintzenez herrian ez zen entzuten apenas euskararik. Euskara zen etxe barruan egiteko, anekdota bat. Zerbait egin beharra zegoen. Beraz, barrutik irteten zaizun zerbait da euskararen alde egitea.

## **Lorpenak ikusi dituzu?**

Bai, baina berriz ere atzerakadan gaudela uste dut. Bakarrik zaharrei entzutek euskara gazteen artean erabiltzera jauzi handia egon zen, baina pentsatzen dut orain gutxiago entzuten dela. Erabilerak gorantz egin zuen, baina atzerakada edo geldiuene bat egon da. Uste dut, askotan, gauzak eginda daudela pentsatzen dugula. Badago nolabaiteko bertan goxo egote bat. Oso kezkatuta nago. Ez bakarrik erabilerarengatik, baizik eta kalitatearengatik ere.

## **Dena ez baita euskara ezagutzea eta erabiltzea, ezta?**

Erabileran ere badugu zer hobetu. Batzuetan gertatu zait harriritza jendea euskaraz entzun izan dudalako. Hori larria da. Lankide batek zera esaten zidan: “Egiten duenak, ondo egiten du”. Bai, baina batzuetan pentsatzen dut euskaldun kontzientziatuak edozelan erabiltzen duela euskara eta ez diola erreparatzen kalitateari. Hori ere zaindu beharko litzateke.

## **Beraz, badago lana etorkizunera begira. Zuek egindako lana bezainbeste?**

Bai, baina ez dut ikusten horretarako jenderik. Askoz ere erosoago gaude guztiok, baita ni ere. Ez dakit, agian ilusio gutxiagorekin. Ez dakit pandemia osteko zerbait den, baina zerbait igartzen dut. Batzuetan zerbaitengandik haserretzen gara, eta kitto.







Marimaistraren azalean.

### Nekeza da beti borrokan jarraitzea?

Nekeza, neke eta dena. Borrokak ez dut etenik. Orain, adibidez, udaltzainen eta euskararen B2 mailaren kontua izan da mintzagai. Udaltzainen hizkuntza-profilak 40 urte inguru daramate ezarrita eta, orain, auzitegi bat dator eta dio ezetz, euskarazko B2 maila edukitzea ez dela derrigorrezkoa (eta ez da hain maila altua). Eskubideak dituzte, baina guk ere eskubideak ditugu. Hizkuntza eskubideak pertsonalak eta kolektiboak dira. Batzuetan ahaztu egiten zaie, langile publikoak izan nahi badute, jendearen zerbitzura jarri behar direla eta jendearen eskubideak bete behar dituztela. Azkenean, beti egon behar gara adi. Beti dago botereren bat atzera bota nahi gaituena.

### Euskara irakaslea zara, blogaria, iritzi-emailea, Marimaistra... Mila saltsatan sartuta egotea gustatzen zaizu? Nola sortzen dira proiektu guzti horiek?

Izaera kontua dela uste dut. Beste batzuk euskararen alde egiten ibili dira eta ez dituzte hainbeste zorakeria egin. Ia denari baietz esaten diot, erraza naiz, eta beti gustatu izan zait gauza ezberdinak egitea eta proiektuetan parte hartzea. Blogari izatea bakarkako lana da, baina beste guztia taldean egin dut. Blogari lana ere eibar.org komunitatearen barruan egiten dut. Orduan, hori ere, bakarkako lana bada ere, talde baten barruan dago. Aipatu dituzun ekimen guztiak kolektiboak dira (Badihardugu euskara elkarte eta aipatu beharko litzateke) eta Sagardo Egunerako deitu zidatenean pentsatzen nuen talde baten izenean ja-

**“Euskalkiak sustraiak dira eta, gure sustraiak zenbat eta gehiago ezagutu, batuan ere hobeto funtzionatuko dugu”**

Elkarrizketaren bideoa



sotzeko deitzen zidatela. Hau da, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran ibili ginen gazteen izenean. Azkenean, ez naiz ni, gu gara. Euskara bezala.

### Nola gogoratzen duzu ...eta kitto!-ren sorrera?

Oso dibertigarria izan zen. Adin guztietako jendea zegoen, baina gazte pila bat elkartu ginen. Orduan, edozein gauza egiten genuela, parranda egiten genuen. Oso giro ona zegoen gure artean, optimismo moduko bat. Batzuek euskaraz egin zituzten ikasketak, baina beste batzuk A ereduko umeak ginen. Orduan, gure artean kolektibo bat sortzea eta bertan euskaraz modu naturalean egitea... Oso gustura gogoratzen dut sasoi hura. Lan asko egin genuen, eta baita borroka ere, geure artean eta nagusien kontra. Polita izan zen, asko ikasi genuen eta hor ibilitako jende batek ez dugu... eta kitto!-n jarraitu, baina beste toki batzuetan hazia zabaldu dugu.

### Beno, tarteka iritzi-artikuluak idazten dituzu ...eta kitto!-n.

Bai, eskatzen didazuenean, ni prest. Gainera, Eibarko euskararen idazten dudana bakarra naiz. Azken mohikanoa. Lehen jende gehiagok idazten zuen, eta hori da nire beste penetako bat. Euskara Batuaren oso jarraitzaile sutsua naiz, bestela ez ginatke egongo gauden tokian (ez litzateke literaturarik egongo gaur egun dagoen moduan, euskara irakastea zaila izango litzateke...). Hizkuntza handi guztiek dute batua. Hala ere, uste dut euskalkiak sustraiak direla eta, zenbat eta gehiago ezagutu gure sustraiak, batuan ere hobeto funtzionatuko



...eta kitto!-ren hastapenetan.

dugu. Badakit jende askok ez duela euskalkirik, bere euskalkia batua dela; baina guk, aukera hori edukita, zaindu egin beharko genukeela uste dut. Euskalkia ez da edozelan idaztea, gauzak adierazteko modu bat da. Gainera, hiztegi guztia, Eibarko berbak, denak dira batua. Baita gramatikako formak ere. Kontua da beste batzuek egin duten batuaren irudi bat dugula buruan, eta gurea ere sartu egin beharko litzateke. Eibarren dugun zorrea da dena dagoela jasota eta ikertuta, eta oso erreminta onak ditugula. Beraz, euskalkia gehiago landu beharko litzatekeela uste dut.

**Gipuzkoako Hitza eta Argian ere artikulua idazten dituzu. Izen bat duzula uste duzu? Zuk esandakoak kontuan hartzen direla?**

Ez dut uste izena dudarik. Azterketaren baten jarri dute nik idatzitako zerbait, baina hori ez dakit gustatzen zaidan (barreak). Batzuetan zerbait idazten duzu eta uste duzu demaseko zalaparta sortuko dela, eta gero ikusten duzu ez duela apenas bisitarik jasotzen. Bestalde, beste batzuetan irteten zaizuna idazten duzu eta zeresana ematen du. Gure oihartzuna dena da, ez gaitzen zoratu. Idatziak sare sozialei esker zabaltzen dira, baina pentsatzen dut jendeak gero eta gutxiago irakurtzen duela.

## “Batzuetan gertatu zait harritzea jendea euskaraz entzun izan dudalako. Hori larria da”

**Txargain da sare sozialetan erabiltzen duzun izena. Zergatik izen hori?**

Txargain Nafarroako mendi bat da. Lehen, helbide elektronikoa sortzerakoan, ez zen ohikoa norberaren izena jartzea, gaitzizena baizik. Nik Kalamua jarri nahi nuen, baina hartuta zegoen. Orduan, bederatzi urte-tan Goñin egon nintzen udalekuetan, eta Txargain inguruan dagoenez eta bertan momentu magikoak bizi izan nituen, Txargain jartzea pentsatu nuen. Gero, Twitterren eta Instagramen kontuak zabaltzean izen horri eustea pentsatu nuen eta horrela geratu da. Kalamua libre egon izan balitz, Kalamua izango nintzateke (barreak).

**Zapatuan zerengatik egingo dugu topa?**

Euskararen alde. Eibarren euskara indartzeko, erabiltzeko... Eta gure alde, behar dugu-eta. Herri honetan gozatzea eta ondo pasatzea falta da. Eta gozatu, euskaraz.



Hari-harian. JOXE ARANBERRI

## Eibar FT-ko hamaikakoek goi postuetan hasi dute denboraldia

Eibar FT-ko talde gehienek indartsu hasi dute denboraldi berria eta guztiak, bat bera ere baztertu gabe, goiko postuei begira daude euren multzoetako sailkapenetan. Horrela, bi talde nagusiek aurreko domekan etxean jokatutako partiduetan garaile izan ziren: goizean, RFEF 1. Mailan jokatzen duen emakumezkoen taldeak 2-0 irabazi zion Rayo Vallecanori Unben; eta arratsaldean, Smartbank Ligan jokatzen duen gizonezkoenak 2-1 gainditu zuen Santanderreko Racing Ipuruan. Emaitza horiekin, Yerai Martinen taldea lidergoan dugu, Deportivo, Barcelona eta Osasunarekin berdinduta eta Garitanorena, aldiz, hirugarren, Las Palmas eta Alavesengandik bi puntura. Azken talde horrek Zaragozan izango du hurrengo erronka,



Vitoria filiala bere multzoko liderra da.

astelehenean 21:00etan jokatuko den norgehiagokan, eta emakumezkoenak Logroñon izango du hurrengoa.

### Harrobiak ere ondo erantzun du

1. Nacionalean jokatzen duen emakumezkoen bigarren taldea, Realekin galdu eta gero, laugarren da, donostiarrengandik eta Burgosengandik hiru puntura. RFEF 3. Mailan jokatzen duen Vitoria gizonezkoen filialak, bestalde, 4-0 irabazi zion Touring taldeari eta liderra da, Barakaldo eta Leioarekin berdinduta. Eta Erregionaleko Ohorezko Mailan jokatzen duen Eibar (Eibar Urko) hirugarren da, Añorgarengandik hiru puntura, azken jardunaldian Zarautzen 0-2 irabazi ondoren. Jubeniletara jauzi eginez, Ohorezko Mailan jokatzen duen lehen taldea lidergoan dugu, Realekin berdinduta, eta Nazional Mailan jokatzen duen Eibar B bosgarren da.

## Garaipen garrantzitsuak Eibar Eskubaloiko bi talde nagusientzat

Gizonezkoen taldeak garaipen argia eskuratu zuen beti irabazteko zaila suertatzen den Lodisna San Antonioren aurrean (34-27). Maisuki gailendu zen Fernando Fernandez taldean Mikel Zuloaga izan zen goleatzaile nagusia, zortzirekin, eta Jon Barruetabeña ez zen atzean geratu, beste seirekin. Une honetan, gainera, Zuloaga multzoko goleatzaile nagusia da, bi partidutan 17 gol egitea lortuz. Sailkapenean ere goigoian daude eibartarrak, Helvetia Anaitasuna, Casademont Zaragoza eta Trapagaraekin berdinduta, orain arte jokatutako bi partidua irabazita. Emakumezkoen taldeak, bestalde, denboraldiko lehenengo garaipena eskuratu zuen Elgoibarren, Gaurve Asesores-i 14-17 irabaziz, gol gutxiko neurketaren barruan. Nahia



Benitez, sei golekin, eta Maitane Velasco, laurekin, izan ziren goleatzaile nagusiak, eibartarren golen erdia baino gehiago sartuta bien artean. Garaipen garrantzitsua da Andoni Perezen taldearentzat maila berriari neurria hartzen joateko.

Asteburu honetan Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak beti konplikatu den Kukulla-ga Etxebarri hartuko du Ipuruan, eta gizonezkoenak, bestalde, Il capo Hondarribia Bidasoaren kantxa bisitatuko du.

## Hodei Ezpeleta Euskadiko Aizkora Txapelketako finalean izango da berriro

Aurreko domekan Elgoibarko Olai-zaga kiroldegian jokaturako Lehen Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finalerdian "Bihurri" Eibarko aizkolaria Bilbon azaroaren 27an jokaturako den finalerako sailkatu zen. Aurretik ere txapelketa garrantzitsu hori bereganatu duen Hodei Ezpeletak bigarren denborarik onena lortu zuen lanaren amaieran, 21 minutu eta 51 segundorekin. Bere aurretik sailkatu zen finalerdi horretan Jokin Urretabizkaia donostiarra (20:55) eta urrutiago geratu zen Josean Etxebarria (24:47). Atzetik izan zituzten Xabier Zaldúa, Luis Mari Txapartegi eta Iban Resano ere hemendik pare bat hilabetera Miribillan jokaturako den txapelketa horretan izango dira, finalerako seikotea osatuz.



Miguel Ledesma 25 urtetik azpikoek Europako txapela jantzi zuen. MIKEL TABOADA

## Jaz Triatloi Taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten aurreko asteburuan

Bilbon jokaturako Triatloi Multi-kiroleko Europako Txapelketetan, Pello Osoro eibartarrak lortutako maila handiko emaitzez aparte, JAZ Eibar Triatloiko Miguel Ledesma ermuarrak txapela jantzi zuen 25 urtetik azpiko mailan. Triatloiko distantzia erdiko mailan jokaturako proba horretan bere mailako bigarrenari zortzi minututik go-

rako aldea kendu zion. Bestalde, Iker Goikoetxea JAZeko taldekidea Vautourmanen jokaturako distantzia luzeko duatloian nagusitu zen. Hasi eta amaitzeko antxintxiketa saioetan onena izan eta, horrela, bizikleta gainean bigarren amaituta ere (bost minutu ateratzen zizkion lehenengoak), azkenean lortu zuen helmugako zinta berak mozte.



## Arantzazu eta Brinkola lotu zituzten Deporrek mendizaleek azken irteeran

Klub Deportiboko mendi batzordekoak Arantzazutik Brinkolara joan ziren aurreko zapatuan. Araba eta Gipuzkoaren arteko mugan ibili ziren jardunaldi guztian, bidean mendixka ugari gainditu eta hainbat tontor igarotzeko: Zurkuntz, Napar Basoko Punta, Trango, Urkitza... "Arantzazutik errekarra jaitsi eta beste maldara pasatu ginen. Urkila mendisokaren bila pagadi mardulak gurutzatu genituen. Ia goian ginela, haize-erroten zarata entzuten hasi ginen". Hortik norabidea aldatu eta Urbiara iritsi ziren,

artzain etxoletan barrena. Bertan egin zuten hamarretakoa, ordurako euria tarteka gogor izan zutela, "baina zuhaitziek babesten gintuzten zelanbait". Ondoren, "arbolarik gabe Enaitz altxatzea tokatzen zitzaigun; behelainoak alde egin zuen apur batean eta gure hurrengo helburua, Bihotzkorniako lepoa, ez zegoen urruti. Handik goitik behe-ra sigi-sagak eginez Barrendiolako urtegi txiki eta urez eskaxera heldu ginen eta beste kilometro batera gure jomuga Brinkola genuen. Egun ederra zapatukoa".

## 14 denboralditan bere kategoria zena berreskuratze bidea hasiko du errugbiko gizonzkoen taldeak

Asmo hori izango du behintzat Eibar Rugbyko gizonzkoen talde nagusiak domekan hasiko duen Ligan. 14 denboralditan bere kategoria izan zen Ohorezko B mailatik jaitsi ondoren, kategoria hori berreskuratzea izango du erronkatzat Eibarko lehen taldeak. Taldeak 30 fitxatik gora ditu, tartean aurten sartu diren klubeko, akademiako eta bestelako jokalariekin. Ligan 11 taldek hartuko dute parte, bi fase-tan banatuta; lehenengoan bi multzotan banatuko dira, sei eta bost talderekin. Hamar jardunalditan guztiak elkarren aurka jokatu eta gero, multzo bakoitzeko lehen hiru

sailkatuek osatuko dute Ohorezko Mailako lehen multzoa; hirugarren postuetatik beherakoekin Ohorezko Mailako bigarren multzoa osatuko dute. Horko bigarren fasean guztiak guztien aurka jokatuko dute, joan-itzulian, eta txapelak plaza irabaziko du Ohorezko B mailako FER (Espainiako Errugbi Federazioa) ligetako igoera fasean sartu ahal izateko. Ez dute nolana hiko erronka aurtengoa eibartarrek!

Domekan Unben Rioja hartuta hasiko duen lehenengo fasean Eibar Rugby Taldearen partiduak honakoak izango dira: etxean, Arrasate (urriak 16), Getxo B (azaroak 6) eta



Ibarburu eta Young, taldeko arduradunak.

Zornotza (azaroak 20); kanpoan, bestalde, Zornotza (urriak 9), Durango (urriak 23) eta Rioja (azaroak 13) bisitatu beharko ditu Eibar RT-k. Urriko azken asteburuan ez du partidurik izango.



## Arima Galduak jugger taldea Madrilen

54 taldek jokatu dute torneo hori, tartean Alemaniak etorritako bi eta Frantziako beste hiru. Euskaldunak, bestalde, hiru izan dira aurreko asteburuan Madrilen jokaturako torneoan, euretako bat gure herriko Arima Galduak. Eibartarrak, azkenean, 47. postuan sailkatu ziren. Torneoak hiru fase izan zituen: sailkapeneko, ordenaziokoa eta azken

fasea. Lehenengoko fasean talde guztiak hiru ekipotako 18 multzotan banatu ziren. Bigarrenean, alderantziz, hiru multzo egin ziren, bakoitza 18 taldekoa, lehenengo faseko emaitzei jarraituz. Eta hirugarren eta azken fasean azken sailkapenerako postuak erabaki ziren. **Laura Leonarteren argazkian**, Eibarko taldea torneoaren amaieran.

## Urki FT-k indartsu hasi du liga Erregionalean

Hori bai, talde nagusi hori izan da bakarra klubean garaipena eskuratzeko azken asteburuan, harrobieta-koko beste guztiak galdu egin zituztelako euren partiduak. Erregional Preferente mailako taldeak, bere aldetik, 2-1 irabazi zion Anaitasunari, Zubi eta Magunaren golekina. Eurekin batera, orain arte jokatutako bi partiduak irabazi dituzten Danena eta Ilintxarekin berdinduta, sailkapenaren gorengoan daude Urkikoak. Klubaren beste taldeek honako emaitzak izan zituzten azken asteburuan: jubentzetan, Ohorezkoak 4-1 galdu zuen Ilintxarekin eta Preferentekoak 2-4 Burumendirekin; eta kadeteetan, Ohorezkoak 2-0 Anaitasunarekin eta bigarren taldeak 1-0 Arrasaterekin.



## “Ekilibrista”, Markos Untzetaren seigarren diskoa

Markos Untzeta kantari eibartarrak bere seigarren diskoa, “Ekilibrista” izenburuko lana, aurkeztuko du datorren astean, eguaztenean, Donostiako Alde Zaharreko Liburutegian. Untzetaren biografia musikalean ohikoak diren estiloak eta eraginak biltzen ditu lan berri honek ere: rock amerikarra, bluesa, folka, countrya... Usurbilen Haritz Harreguy teknikariaren eskutik grabatutako lana da eta, Giovanni Zanon musikari lagunaz gain, Karlos Arancegui eta Fernando Neira izan ditu lagun base erritmikoan.



## MICE-ren lan berria kalean, digitalean, eta laster biniloan

Atzo bertan kaleratu zuen “Lautada” izeneko diskoa MICE-k. Miren Narbaiza eibartarraren bakarkako proiektuaren hirugarren abesti bilduma berria, oraingoz, formatu digitalean baino ez dago eskuragarri, baina urriaren 14rako ailegatuko da biniloan, Forbidden Colours zigiluaren eskutik. LPak zortzi abesti ditu eta bertsio digitala micenaiz.bandcamp.com webgunean eros daiteke, zazpi eurotan (20 eurotan biniloa nahiago izanez gero). Orain dela hilabete batzuk aurkeztu zuen lehen singlea, “Ernaltzen”, eta irailaren hasieran bigarrena, “Inor begira izanda ere” izenburukoa.



## Ylenia Baglietto “Mamma Mia” musikalean arituko da

Urriaren 7an hasi eta azaroaren 27ra arte Madrilgo Gran Vian dagoen Rialto Antzokian ikusgai izango den musikal horretan hartuko du parte Eibarko antzezleak. Abba pop talde suediarren jatorrizko abestietan oinarritutako musikala 2004an estreinatu zen, Madrilgo Lope de Vega Antzokian, eta 2011ra arte iraun zuen ikuskizunak. Bi ordu eta 20 minutu inguruko iraupena du SOM Producek sortutako musikalak eta Ylenia Baglietto eibartarrak Donna, Tania eta Rosiren paperak egingo ditu.



## “Martin Zalakain” lanaren azken bi emankizunak

Euskal Herrian barrena bost urteko bidaia borobiltzera doa Martin Zalakain ikuskizunak. Irailaren 17an Oñatin egon eta gero, Deba (bihar, urriak 1) eta Donostia (urriak 23) izango ditu azken geltokiak. Dantzaren bidez literatur klasiko bat kontatzeaz gain, Martin Zalakain protagonistak adina abentura bizitzeko aukera eman digu Juan Antonio Urbeltzek eta Ander Lipusek zuzendu eta Argia eta Artedramaren eskutik eszenaratutako ikuskizunak. Eibarko Kezka dantza taldeko hainbat dantzarik hartzen dute parte ikuskizunean.





## Zirkuaren magia guztiarekin etorriko da Circ Bover taldea bihar Errebal Plazara

Circ Bover konpainiaren eskutik zirku garaikideaz gozatzeko aukera bikaina egongo da bihar, 19:00etan, Errebal Plazan. “Ávol” izeneko ikuskizunak artistaren figura aldarrikatzen du, horretarako lau pertsonaiaz baliatuta. Pertsonaia horiek bat-batean beraien burua berrasmatzeko behararekin topo egiten dute eta, gerora sortutako egoerak, banbu-makilekin eta sokekin sortutako eszena-unibertso batera eramaten ditu. Kulturak gaur egun betetzen duen tokiari buruzko adierazpen komikoa da lana eta sarrera doan da.



## Trio Medianoche taldearen disko berria Gabonetarako

Trío Medianoche taldeak abenduaren 23an Coliseon kontzertua emango du eta bertan aurkeztuko dute Pedro Bartrak, Jesus Mari Bastidak eta Bernardo Aguilera osatutako hirukoteak Udalaren babesarekin kaleratuko duen disko berria. Legarreko estudioan grabatuko duten diskoak sei abesti berri eta taldeak inoiz grabatu bariko beste bost kantuek osatutako bilduko ditu eta taldearen hirugarren lana izango da. Kontzerturako sarrerak azaroko lehen astean jarriko dituzte salgai.



## Kulturalaren 70 urteak ospatzeko jarduerak urrian

Arrate Kultur Elkarteak 70 urte betetzen dituela eta, hainbat ekimen antolatu dituzte urrian zehar burutzeko. Batetik, elkarteko bazkideen erakusketa kolektiboa zabalduko dute datorren barixakuan, Topalekuan (lanak aurkezteko epea eta muntairako data, urriak 5). Eta, horrez gain, bi tailer egingo dira: “Arteterapia”, urriaren 15ean eta 16an, Maite Arriagaren eskutik (izen-ematea 640 79 21 19 telefonoan); eta Mireia Agirrebeñak “Kolaslean” emozioak collage bitartez lantzeko tailerra emango du urriaren 11,13,18 eta 20an, 19:00etatik 21:00etara (izena emateko deitu 689 02 08 23 telefonora).

## “Itzalpean” erakusketa Portalean

Aurreko barixakuaz geroztik ikus daiteke “Itzalpean” (“Espectro de oscuridad”), Pilar Soberón artistaren erakusketa, Portalean. Gizakiak naturarekin duen harremanari buruzko gogoeta egiten du erakusketak instalazioen, bideoen, eskulturen eta argazkien bidez, eta urriaren 23ra arte egongo da ikusgai.




## Bertsoak musikarekin uztartuko dituen saioa egingo da gaur

Gaur 22:00etan hasiko da Hankamotxak bertso-eskolak, Udalak lagunduta, antolatutako bertso saio musikatua. Txaltxa Zelaiko auditorioan egingo da (euria eginez gero, Errebal Plazan), Maialen Akizu, Miren Artetxe, Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia bertsolariekin, Maialen Bergara gai-jartzaile dutela. Musikariak, berriz, Gari Otamendi eta Ixak Arruti izango dira.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

		5	9					
	9		8			2	5	1
4			6					
	1		7			6		
5		7				8		3
		3			9		7	
					6			7
3	7	8			4		2	
					5	4		




soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

2		4		3					
		3		6		2			7
7	6				5				
			5	8		4	1		6
4		6	5		7	2			
				4				1	9
8				1	3			4	
					7	8			2



soluzioa



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**

# Irailak 30/Urriak 6

## BARIXAKUA 30

### AZKEN OSTIRALA

19:30 Etxerat eta Sare elkarteek deituta. Untzaga.



### BERTSOAK

22:00 Bertso saio musikatua. Txaltxa Zelaiko auditorioa (euria eginez gero, Errebal Plaza).



## ZAPATUA 1

### MANIFESTAZIOA

12:00 Debabarreneko Pentsiodunek deitutako manifestazioa. Untzagan hasita.



### SAGARDO EGUNA

12:00/14:30 eta 19:00etatik aurrera Sagardo Eguna: sagardoa, pintxoak, musika... Untzaga.



### ZIRKUA

19:00 "Ávol" (Circ Bover). Doan. Errebal Plaza.



## DOMEKA 2

### BIZIKLETA EGUNA

09:00 Mountain-bike eta zikloturista martxen irteera, Untzagatik.

11:00 Eibarko bidegorria ezagutzeko ibilbidea, Untzagatik hasita.

11:30 Herri barruko zirkuitoa, 8 eta 10 urte bitartekoentzat.

11:45 Herri barruko zirkuitoa, 11 eta 12 urtekoentzat.

12:00 Gazteentzat ibilbidea eta zikloturisten helmuga. Untzaga.



### AGIÑAKO JAIK

11:00 Meza nagusia eta hamarretakoa.

12:30 Gorixoren abereak.

14:30 Paella-jan herrikoia.

17:00 Erromeria DJ Arnok alaituta. Aginagan.



## EGUENA 6

### BERBETAN JAIALDIA

17:00/18:30 Berbetan jaialdia. Untzaga.

## ERAKUSKETAK

Urriaren 23ra arte:

- **PILAR SOBERON-en** "Itzalpean - Espectro de oscuridad". (Portaleaa).

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

#### KONTZERTUA

30ean (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia

Bulego taldea.

Sarrera: 12 euro.



### SORALUZE

#### MENDI IBILALDIA

1ean (zapataria)

Marraskilo Tour Martxa

06:00: 35 kilometrokoa

08:00: 19 kilometrokoa

Plaza Berritik abiatuta

### DEBA

#### IKUSKIZUNA

1ean (zapataria) / 22:00

Kiroldegia

"Martin Zalakain".

Sarrerak Turismo Bulegoan:

15 euro (18 euro takilan)



# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **1ean:** 19:45, 22:30
- **2an:** 20:00
- **3an:** 20:30

**“Viaje al Paraíso”**  
Zuzendaria: Old Parker



## 2 ARETOA

- **1ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **2an:** 17:00, 20:00
- **3an:** 20:30

**“Black is Beltza II”**  
Zuzendaria: Fermin Muguruza



## ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **2an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **3an:** 20:30

**“Modelo 77”**  
Zuzendaria: Alberto Rodriguez



## ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00
- **2an:** 17:00

**“El colegio de los animales”**  
Zuzendaria: Gregor Schitzler



**Jesus Garagarza Gurrutxaga “Txuti”**

**3. URTEURRENA**  
2019/09/30

“Zu joan zara,  
baina zureganako  
gure maitasuna ez”



**EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO**  
- ETXEKOAK -

<p><b>FUNEUSKADI</b> Funeraria</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p><b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeraria</p> <p>TANATORIO ERREMATOZO LEKOILAN</p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xivilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ernuako bulegoa:</b> Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ernea · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **KOIKILLI!!!** Ondo ospatu zenduan zure eguna, ezta? Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MALEN!** Urriaren 5ian urtetxua beteko dozu-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Julen anaixaren partez.



Zorionak, **MADDI!** Atzo 10 urte jada, maittia! Jarraitu holan, pozik. Patxo haundixa famelixaren eta, bereziki, Ekhi-ren partez!



Zorionak, **PAULE!!!** Zapatuan 4 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat zure famelixaren eta, batez be, Euken, Xuhar eta Julenen partez.



Zorionak, **PELLO!!!** Gaur 8 urte potolo betetzen dozuz-eta. Jarraitu beti bezain jator. Asko maite zaittugu!! Txomin eta Elixeren partez.



Zorionak, **ELENE,** martitzenian 8 urte bete zenduaz-en-eta!! Musu haundi-haundi bat, txapeldun, famelixa guztiaren eta, batez be, June-ren partez.

**PUBLI RESA**  
objeta publicitario

- merchandising
- serigrafia
- lanerako errota

www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 415  
Armagin, 3-5 behe

**ek!**

Zure publikitatea herriko aldiakarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus

**B**ERBETAN JAIALDIA

**URRIAK 6**  
**OSTEGUNA**  
**UNTZAGAN**  
**17:00-18:30**

*Puzgarriak, jolasak...*

**eta kitto!**  
publizitatea@etakitto.eus

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 664823992.
- Bikoteak etxebizitza hartuko luke alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Lursail/terreno baten bila nabilerosteko Eibarren edo inguruan. 669141127. Ibon.

### 3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai. 132 m2. Etxebizitarik gabeko eraikinean. Segurtasun-pertsianarekin. 656756485.
- Eibarren lokala alokatzen da. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin). 634430647..

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarak egiteko. 722499476.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 678135914.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernan lan egiteko etab. 661718993.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641421135.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. 643265561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Externa. 612297642.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 627145985.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta pegorak garbitzeko. 8 urtetako esperientzia. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxe-lanak egiteko. Externa edo asteburuetan interna. 634889278.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da etxe garbiketarak egiteko eta jendea zaintzeko. Orduka. 602051567. Selma.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (sozio-sanitario titularekin). Orduka eta baita gauzez ere. 631425686.
- Erizaina eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 624153040.
- Mutila eskaintzen lana egiteko: eraikuntzan, tabernetan, garbiketarak, nagusiak zaintzen... 643036859.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, kamarera moduan eta nagusiak zaintzeko. 641849936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 624131378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) gauzez. Externa. 612461503.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 622023451.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta informeak. 722408667.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta informeak. 689003537.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. EGA titularekin. 610324903.

## 4.2. Langile bila

- Elgoibarko mekanizazio-enpresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rekifikadora) lan egiteko. Esperientziarekin. Lan-kontratu mugagabea.. email: angel@swisslan.es
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau lagun. Urteetan esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Edozein arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- LHko klase partikularrak ematen dira. 640019325. Nerea.
- DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Bi aulkik elektrikoko salgai. Egoera oso onean. 660917919.



# osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk.  
943 202691  
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua  
Degluzio atipikoa / Disfonia  
Ikaste-arazoak / TDAH  
Berba arazoak / TEA / Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

**ELENA  
AIZPUN  
PODOLOGOA**

838200124  
kolegiatu zuzendaria

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. helaga  
www.centrametsa.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (3201987 kolegiatu) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

## Okulistak

**Recalde**  
Clinica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikoa

·Kataraten kirurgian  
espezialistak.

R.P.S. 234113

Plaza Bamba 2, 2º, Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (112 Kolegiatu ztkia.)  
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu ztkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu ztkia.)

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**PODOLOGOA**

Maidor  
Lopez  
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu ztkia.

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili  
GOMEZ ETA ARRATSAIDIZ

Urkizu, 13 - behean  
Tel. 943206823 / 686859023



943-206776



# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

**EIBAR / DURANGO ABENDUKO DEIALDIA**

**MATRIKULA EPEA Urriaren 3tik 14era arte**

AZTERKETA	DATA	PREZIOA
PET FS .....	Abenduak 10 (larunbata) azterketa osoa .....	100 euro
FCE .....	Abenduak 10 (larunbata) azterketa osoa .....	190 euro
CAE .....	Abenduak 10 (larunbata) azterketa osoa .....	198 euro

## INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

<b>ARRASATE:</b>	Parlance	943 77 06 83	<b>DIBA:</b>	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
<b>BERGARA:</b>	Espolon School	943 76 03 53		English Square	648 26 82 06
<b>EIBAR:</b>	Link Idiomas	943 20 39 59	<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak	94 681 00 58
	Target Schools of English	607 83 36 13	<b>MARKINA:</b>	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
<b>ERMUA:</b>	Akerlei	943 17 66 32	<b>ELORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<b>ELGOIBAR:</b>	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	<b>BERRIZ:</b>	Speak up	94 622 52 94
	ILS	943 74 40 40	<b>ZUMAIA:</b>	Golden Gate	943 86 50 20
<b>ONATE:</b>	Sounds Great	943 78 20 91	<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz	943 60 43 58

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

### M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

#### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)